

Osatu testua proposatutako hitzak dagokien tokian jarriz.

herrixkak	gogorrangoak	oholesi	gurpila	ekoizlea	egurrez
lanbideak	harraparia	errotak	sedentario	megalitoak	trukea
biltegiak	Zeramika	Hilobi	Ehunak	Ukuiluak	burua

Orain dela 11.000 urte, neolitoak funtsezko aldaketa bat eragin zuen historiaurreko pertsonen bizimoduan. Garai hartan gizakiak (1)..... izateari utzi zion, eta bere elikagaien (2)..... bilakatu zen. Horrela abeltzaintza eta nekazaritza sortu ziren.

Abeltzaintza eta nekazaritzaren sorkuntzarekin (3)..... bihurtu ziren, hau da, leku finko batean bizi ziren ez zutelako janariaren bila joateko lekuz aldatu behar.

Etxe alboan animaliak eta landareak zituztenez, etxeak egiten hasi ziren, lehen (4)..... sortuz. Normalean, etxeak (5)....., lastoaz, lokatzez egiten zituzten.

Herrixkak ibai alboan kokatzen ziren, ura hurbil izateko. Herrixkak (6)..... batez inguratzen zuten, beste gizaki edota animalietatik babesteko. (7)..... (animalientzat) eta (8)..... (uzta jasotzeko) zeuden.

Neolitoan hiru aldaketa tekniko garrantzitsu gertatu ziren:

1. **Harri (9)**..... lantzen ikasi zuten eta, beraz, lanabes hobeak egiten zituzten.
2. **(10)**..... (ohialak) egiten hasi ziren. Haria animalien ilez egiten zuten.
3. **(11)**..... asmatu zuten. Horrekin, sukaldean erabiltzeko, ura eta elikagaiak gordetzeko objektuak landu zituzten.

Nekazaritza lanak zirela eta, asmakizun batzuk agertu ziren, hala nola eskuzko (12)....., zeramika, eta zumezko eta espartuzko objektuak, saskiak eta sandaliak, ehungailua, goldea eta (13).....

Neolitoan, gizakiak gai izan ziren irauteko behar zituzten baino elikagai gehiago ekoizteko. Horrek garrantzizko ondorioak izan zituen:

- Lana banatu eta lehen (14)..... sortu ziren
- Falta ziren objektuak eta materialak eskuratzeko beharrak (15)..... agertzea eragin zuen, hau da, herrixken artean produktu batzuk eman eta ordainetan beste batzuk hartu.
- Pertsonen kopurua gehitzeak, lanen banaketarekin eta lurren zein etxeen desberdintasunezko partiketarekin batera, herrixkako (16)..... agertzea eragin zuen

Aro honen bukaeran, hainbat monumentu eraiki ziren harrizko bloke handiekin, (17)..... deitutakoak. (18)..... edo erlijio gurtzarako gune gisa erabili ziren.